

EKLIPSEZ

“Flabbergasted”

PROSA, A KATEGORIA

I

EGUZKIA GORDETZEN HASI DA

*“Idatzi,
zuk idatziko ez duzuna
nik ezin dudalako
idatzi.”*

Castillo Suarez

Idazluma hatz artean.

Begi ninien parean, sentimendu eta bizipenen betetasunaren ondorio diren zimurren giblean gordetzen diren orlegizko begitxoei hau zikintzeko erreguka ari zaien pergaminaoa, artean zipriztin bakar batek ere busti ez duena. Honek, eskumako eskuaren keinuren baten arrastorik ezean, urguriaz gonbidatu berri du Aimèe bere tresna preziatua orrian pausatzerara, astiro, mugimendu geldoak eginez.

Zalantza.

Gogoeta.

Hitz bakar bat baino ez du idatzi.

Idazluma orrialde zuritik urrundu du eta besaulki erosotik zutitu da, inertziaz. Eskuekin bekokia ferekatu du, erabat ernegatuta, guztiz unaturik. Bai; izan ere, Aimèek beti esan izan du beldur gehiago diola orrialde zuri bati gerra odoltsuari berari baino.

“Ez duzu zertan larritu, maitea,” amaren ezpain artetik irten berri zen haize gozoak belarria laztandu zion Samuli. Orduan, honen esku mardulen fereka amoroskiak esnatu zizkion begiak, kafearen kolorekoak, “egon zaitez lasai”. Ezin, ordea.

Amaren eskuek semearenak astiro heldu, eta honen ahurretako bat bihotzaren gainean pausaturik utzi zuen hau lurrean etzanda mantentzen zen bitartean, zeren beldurrak ahurrak bihotzera gerturatzerara behartzen ei baikaitu, gure burua babesteko. Edo, hobeki esanda, beldur sentimendu hau munduari ezkutatzeko, nahiz eta benetako adorea ez dagoen izua ezkutatzean, hau baino ezer baliotsuagorik badela onartzean baizik. Horrela esaten zion beti amak Samuli. Artean txikiegia bide zen, ordea, horren esanahia guztiz ulertzeko. Txikiegia omen zen, hain juxtu, konturatzeko.

Baita konturatzen zela konturatzeko ere.

Beldurrak, hain zuzen ere, aurre egiteko daudela sinetsi izan du beti Aimèek. Horrela, paper zuriarekiko larderiak egongelako mahaitxora zuzendu du emakumea, bertan pausaturik dagoen ordenagailuaren pantailaren pare-parean jesarriz. Zuri, hau ere.

Bere buruko labirintoan gomutazioaren baten bila aritzeari utzi eta, berriro ere errealitatera itzultzean, bere begien aurrean pantaila zuria ikusteak apur bat tristetu duela aitortu behar da.

Eskuek ordenagailuko teklatuan pausaturik jarraitzen dute, papereratu beharreko artikulua idazteko hasieraren baten bila labirintoan barrena abarkatu aurretik bezalaxe. Hoztu dira dagoeneko, eta hauek martxan jartzea erabaki du apurtxo bat berotu daitezten.

II

ILARGIAK AURKEZTU DIGU BERE BURUA

Ondo dago, lehenengo esaldia idatzia dauka jadanik, eta lasaitutxo atsegin bat hartu du, hauxe izaten baita artikulua idazterakoan zailena, irakurlearen gogoia lapurtzeko adinako magia izan behar baitu derrigor.

Mutikoaren oin hutsek lurra gero eta indartsuago jotzen zuten hareatan ezkutaturiko beldurra aireratzeaz batera. Lurraren berotasuna handitu ahala, amak Indo ibaitik gertu zeudela iragartzen zion, eta gutxinaka pausoak mantsotzeko joera hartu zuen mutiko gazteak.

Besoekin ere indarra behar zuen egin horrenbeste denboraz itxaron zuten gertakariaren lekura helduko bazen; zutik mantentzen zuten bi makila haiek, aitak berariaz Samulentzat eginak, garraiatzen zuten mutikoa hara eta hona. Hauek ziren bere gidari.

Fedea, bere aitzindari.

Berriaren inguruan oldozten diharduen bitartean, eskumako eskuko hatzetako bat ahora eraman du lipar batez. Gestu hori kontzentrazioaren adierazle izaten ei da. Zerbait egiterakoan mihia ateratzea bezala dela esaten zion bere amak. Edota emakumeak senti lezakeen lotsak hau kirruak gehiago kiribiltzera eramaten duen beste imintzio hori bezalakoxea.

Haatik, ideiek ez dute Aimèeren burua inguratzerik lortu oraindik. Labirintoko karriketan aurrera jarraitzen du, lehenbizi ezkerrean, eskumara gero. Ideiaren batera hertsitzen ari dela hautematen duen bakoitzean, aurrera egitea galarazten dion horma batekin aurkitzen da aurrez aurre, mespretxuzko soa botatzen dio, eta atzera egin eta beste bide bat hartzera behartzen du.

Orrialde zuriaren gainaldean tinta beltzezko hamar-bat hitz baino ez da ageri. Esaldiaren amaieran, idaz-marra, behin eta berriro ñir-ñir eginez. Kazetaria zerbait idazteko esperoan dago. Honi, ordea, inspirazioa falta zaio, eta ez zaio gustuko duen ideiarik bururatzen idaz-marraren erregua asetzeko.

Sagua hartu du, eskuineko eskuaz hartu ere.

Hasiera, Nire Dokumentuak, Nire Musika, Thirty Seconds To Mars, Hurricane... Tell me would you kill to save a life. Tell me would you kill to prove you're right...

Ea musika entzunez ezer bururatzen zaion. Egiaz, ez daki zergatik, baina musika sentitzeko ikaragarritzko erraztasuna dauka, eta askotan musikagandik jasotzen dituen sentazio eta sentimenduak idazten dituen istorioetan eta artikuluetan plasmatzen ditu, istorioak musikaren melodiaren ufadek eratzen dizkiotelarik.

Aitzitik, gaurkoan badirudi ezin dela guztiz horrela izan. Pakistango bidaiako sentsazio eta bizipenak aski baitira hango egoeraren gogortasunaz ohartzeko. Hain da zorrotza guztia, hain da melankoliatsua, non ia ez baita begitanduriko guztia hitzekin adierazteko gai.

Hain zuzen ere, preso zegoen labirintotik irteteko bidea erakutsi dio kantuak, eta idatziko duen artikulua nondik norakoa gordetzen duen ateraino iristen lagundu diote uhin lasaigarriek. Orain giltza baino ez zaio falta atea irekitzeko, baina sukaldera jaitsi eta baso bat laranja zuku edan ondoren jarraituko du bilaketarekin, mapa eskuan (gutxienez lortu du mapa eskuratzea).

III

ARGITZEN ARI DU PIXKANAKA

Gaua atoan heldu zen, eta ilargi betearen argitan non babestu bilatzen ibili behar izan zuten ama-seeek. Azkenerako, lortu zuten babeslekutzat balio izan zien txoko bat aurkitzea.

Gau hura ez zen berehalakoan igaro ez amarentzat eta ez Samulentzat. Eguzkiaren lehen izpiek lurra jo bezain pronto abiatu beharko zuten berriro ere, eta egun handia izanen zen hura. Egun handia. Behingoz lurra bere egiteko lain. Behingoz pertsona izateko lain. Behingoz haur irribarretsu izateko lain.

Izan ere, beharbada munduaren beste zatiak ulertuko ez badu ere, barre guztiok hizkuntza berean egiten dugula ziurtatu zuen William Shakespeare zelako batek. Bai, arrazoi zuen. Guztiok barre hizkuntza berean egiten baitugu.

Baina barrea ez da hizkuntza berean lortzen, ez modu berean.

Listo, ordenagailuaren aurrean da berriz. Dagoeneko hiru orri idatzi ditu, baina azken ukitua falta zaio hitzezko maisulanari: izenburua. Hobe izango du idatzi duena enegarren aldiz irakurri, hausnartu eta gogoeta horretatik izenburua atera. Artikuluari beste gainbegiratu bat bota nahi dio. Ez dio erru maltzurren bati insomnio-gau honetan aprobetxaturiko denbora pikutara botatzen utziko.

Horrez gain, komeni zaio testua *Xuxen* zuzentzailetik pasatzea, bere lankideetako batek hainbestetan errepikatu dion moduan. Perfekzioa bilatu nahi du, bere bizitzan ez bada, bederen, bizitza eskaintzen dion horretan.

Bere buruari zor dio.

Samuli zor dio.

Pakistanera eginiko azken bidaiaren hitz eman zion haur gaixoari, zin egin zion bere amari, haien kasua salatuko zuela. Hobe esanda, ama-seeen begiradei zin egin zien, hauek ez baitzioten ezer eskatu, eta are gutxiago hitza emanarazi. Sufrimendu hura salatu beharra zeukan.

Benetako istorioa makillatzen saiatu da bere artikuluan. Ez du egoeraren larritasuna kasu extremista bateraino eramanez nah izan, ezta gutxiagorik ere. Lausotasun-pintura kapa bakarra baino ez dio eman, nahikoa jendeak ulertzeko.

Nahikoa berak ere ikusitakoaren ostean gogoari atxiki zaizkion irudiak lausotzeko.

Hurrengo eguna ere iluntzen ari zuen bidaia gogor eta luzearen ostean. Izarrak gero eta argiago bistara zitezkeen, euren argi itsugarriak min emateraino. Samul dagoeneko bakarrik geratu zen hainbat eta hainbat umeren artean, ilargiaren mirariaren aiduru.

IV

BADATOR GAUA BERRIZ

Betidanik esan izan duen lez, beldur gehiago eman izan dio orrialde zuri batek gerra gordina bizi beharrak baino. Eta argi izan du azken unera arte. Baita bere beldurrari aurre egiteko norbanako babesgabeen aurkako gerra bizi behar izan badu ere.

Bere buru eta printzipioen aurkako gerra odoltsua bizi behar izan badu ere.

Amak loak har zezan uzteko aholkatu zion artean eguzki printzak suma zitezkeenean, hau basamortuaren bestaldean gordetzen zelarik gauari ongiatorria emanaz, hurrengo egunsentian berriro jaikitzeke asmoz. Baina, guztiek arras ongi zekiten lez, hurrengo egunsentia ez zen ordura arte bezalakoan antzekoa izango.

Ezberdina izango zen.

Eta guztiak prest zeuden euren beldurrei aurre egiteko, onerako izango zela jakin baitzekiten.

Lepoa hareatan pausaturik utzi zuen Samulek, eta gorantz igo zuen begirada, izarretaraino. Euren argiaren goxotasuna ezin hauteman zezakeen bere hanketan, hauen hareak ezkutaturik baitzeuzkan, bere preso.

Ez luzaroko, ordea.

Laster Samulen oinak aske izango baitziren, ilargia agertzearekin batera. Lurraren menpe egotetik lurra mutikoaren menera egotera pasako zen.

Ia 10 urtez atzerik jarraitu zuen herrena alde batera utzi eta sendatzeko garaia heldu zitzaion. Horrela agindu zion amak. Horrela agindu zion aitak. Eklipsearen argiak sendatuko zuen gaitzetik, eta lasterka egin ahal izango zuen, beti nahi izan zuen bezala.

Une hartako sufrimenduak merezitako ongia ekarriko zion, merezi zuen une hura igarotzea. Samulek azken begirada bota nahi izan zien ordura arte bere lagun min izan ziren makulu antzeko bi makila haiei. Agurra izan zedin eskatu zion bere bihotzari, ez zituen gehiago ikusi nahi.

Aldi berri bat hasiko zuen.

Bere gerrarekiko lehen beldur horrek eraman zuen duela hilabete Aimée Pakistango hiribururaino, hura konkistatzeko helburua eskuartean zuelarik. Hura lehenengoz arnastean, gupida besterik ez zuen ikusi, fedea engainatu eta baldintzaturiko jendea, euren sinesmenak ezereza

kondenaturiko jendea.

Samulen begirada.

Honek bidea erakutsi zion. Bizitzaren zentzua gordetzen zuen aterainoko bidea. Samul izan zuen labirintoan gidari. Baina honek ez zion atea irekitzeko giltzarik eman. Ekliptseari utzi zion lanaren zati hori. Ekliptsearen mirariaren testigu izan zedin utzi zion Aiméeri. Ekliptsez ireki zuen bere erraietako atea.

Bai.

Izan ere, guztiok barre hizkuntza berean egiten dugu, eta barre horren arrazoia ikusteko begietara begiratu besterik ez dago. Samulen kafezko begietara. Ikusi besterik ez dago sineskeria hutsal batek zelako indarra daukan gure erraietako desioetan. Hainbesteko indarra, ezen, hurrek egiten duten bezala, egia bilakatuko direla sinetsi beharko baikenuke helduok ere.

Ilargiak egin zuen bere agerpena zero izartuan.

Eta brastakoan, agertu zen bezalaxe, ilargia itzali egin zen, gainean eguzkia jarri zitzaion jarri. Bai, ekliptsea izan zen. Eta, ekliptsearen argiarekin batera, miraria heldu zitzaion Samuli, berriro ere lurraren sua sentitzea ahalbidetuko ziona, berriro ere haur izaten utziko ziona. Berriro ere irribarre egitea ekarriko ziona.

Bai.

Izan ere, guztiok barre hizkuntza berean egiten ei dugu; horrela esan zuen, bederen, Willian Shakespeare zelako batek. Eta guztiok ikus dezakegu barre horren atzean dagoena, barrea baino opari ederragorik ez baitago.

Bai.

Izan ere, Pakistanen ekliptsea da hurrei barrea itzultzen dien bitartekoa. Eta hori, guztiok uler dezakegu, edozein hizkuntzatan mintzo garelarik ere.

Gaztelera izan ala Euskara izan.

Bai.

Izan ere, Aimèek beti esan izan du beldur gehiago diola orrialde zuri bati gerra odoltsuari berari baino. Eta Castillo Suarez delako batek esandakoari men egin nahi izan dio, eta Samulen eskmuturrak egingo ez zituen jardunak bere esku utzi.

*“Idatzi,
zuk idatziko ez duzuna
nik ezin dudalako
idatzi.”*

Fitxategiak, inprimatu, ados...